

Saioaren ibilbidea**Aireportuko agurra****Adierazpide linguistikoak**

Saio honetan orain arte ikusitakoa birpasatuko dugu.

Aditza

NOR	NOR-NORK		NOR-NORI-NORK	
Ni NAIZ HI HAIZ HURA DA GU GARA ZU ZARA ZUEK ZARETE HAIEK DIRA	NIK DUT HIK DUK/N HARK DU GUK DUGU ZUK DUZU ZUEK DUZUE HAIEK DUTE	DITUT DITUK/N DITU DITUGU DITUZU DITUZUE DITUZTE	NIRI ZAIT HIRI ZAIK/N HARI ZAIO GURI ZAIGU ZURI ZAIZU ZUEI ZAIZUE HAIEI ZAIE	ZAIZKIT ZAIZKIK/N ZAIZKIO ZAIZKIGU ZAIZKIZU ZAIZKIZUE ZAIZKIE

Deklinabidea

NOR	NORK	NOREKIN	NORI
Sing- A Plur- AK Iz.nag- 0	AK EK K/EK	AREKIN EKIN REKIN/EKIN	ARI EI RI/I
Mutila etorri da Mutilak etorri dira Pili etorri da Mikel etorri da	Mutilak egin du Mutilek egin dute Pilik egia esan du Mikelek egia esan du	Mutilarekin nago Mutilekin nago Pilirekin nago Mikelekin nago	Mutilari erori zaio Mutilei erori zaie Piliri erori zaio Mikeli erori zaio

	NON	NORA	NONDIK
Sing. Iz.nag.	AN/EAN N/EN Mendian nago Komunean nago Gasteizen nago Bilbon nago	RA/ERA RA/ERA Mendira noa Komunera noa Gasteizera noa Bilbora noa	TIK/ETIK TIK/ETIK Menditik etorri naiz Mendietatik etorri naiz Gasteizetik etorri naiz Bilbotik etorri naiz

Nominalizazioa

T(z)EA	T(z)EKO
<ul style="list-style-type: none"> Gustatzen zait JATEA Atsegin dut ETORTZEA Gustuko dut EROSTEA 	<ul style="list-style-type: none"> ABESTEKO gogoia dut Euskara IKASTEKO denbora behar da Liburua IRAKURTZEKO da

Esaldiak

KAUSALAK (-ELAKO)	BALDINTZAZKOAK (...Z GERO)
<ul style="list-style-type: none">• Berandu esnatu NAIZELAKO nago hemen• Ama gaixorik DAGOELAKO etorri da sendagilea• Ikasi DUGULAKO gainditu dugu.	<ul style="list-style-type: none">• Telebista IKUSIZ GERO, begiak txikitzen dira• Asko JANEZ GERO, asko gizenduko zara• Begiak ITXIZ GERO, amets egingo duzu

Nahi, behar, balio izan aditzak....

Eta gainera...

Orduak, hilabeteak, asteko egunak, zenbakiak, leku izenak, janari izenak...
Erantzunak eta transkripzioa

Transkripzioa

A-Hara, hortxe dago hegazkinen ordutegia!

M-Ea bada, Berlin, Berlin, Berlin, Berlin...., hemen dago.

A-Zer ordutan aterako da hegazkina?

M-Hamabietan aterako da eta seieta iritsiko da.

A-Zergatik hainbeste ordu?

M-Beno ba, lehenengo Madrilera joan behar dudalako.

A-Horrela ulertzen dut. Aizu, kafetxo bat hartzeko denborarik badugu?

M-Bai goazen kafetegira!

A-Eta hemendik aurrera korreoa eta telefonoa erabili beharko dugu komunikatzeko.

Zer idatziko didazu?

M-Bai, zuk erantzunez gero, nik egunero idatziko dizut.

A-Bai, erantzungo dizut. Baduzu etxera joateko gogorik?

M- Ez, ez dut gogorik, oso gustura nago Euskal Herrian eta zurekin. Etorriko zara Alemaniara ni bisitatzera?

A- Beno, hilabete batzuetan hemen geratuko naiz, euskara ikasteko gogo handia dut, eta gero ez dakit, Alemaniara joateko dirua beharko dut.

M- Dirua zertarako? Nire etxean badago lekua eta oso gustura egongo gara.

A- Hitz egingo dugu.

BOZGO- Lufthansa 4353ko bidaiariak joan aireportuko hirugarren atera, mesedez.

M- Beno, nire hegazkina da. Zer musutxo bat?

A- Bai, noski. Muaaaa. Ondo ibili

M- Bai eta idatzi mesedez. Agur txiki!

A- AIO! Bidaia ona izan!

17. saioa: Agur, agur...

Helburua: Kurtsoan ikasitakoa laburtzea eta errepassoa egitea

Aireportuko agurra

Michael _____ bizi da.

- a- Berlinen
- b- Mendozan
- c- Berlingo

Ana _____ bizi da.

- a- gurasoekin
- b- ahizpekin
- c- gurasoarekin

Anari asko gustatzen zaio _____.

- a- erretzea
- b- igeri egitea
- c- erre

Michael asteburuetan lagunekin _____.

- a- ateratzea
- b- atera da
- c- ateratzen da

Anak Ozeania _____.

- a- ezagutu nahi du
- b- ezagutzen du
- c- ezagutu du

_____ emakumeak maite ditu.

- a- Michael
- b- Anak
- c- Michaelek

Michaeli bidaia _____ gustatzen zaizkio.

- a- mugituak
- b- lasaiak
- c- asko

Anak bizio asko _____.

- a- ez ditu
- b- ditu
- c- gustatzen zaizkio

Ana eta Michael _____.

- a- atzerritarrak dira
- b- berdinak dira
- c- kirola gustatzen zaie

A itsatsia

Euskal hitz batzuk berezkoa duten "a" letraz bukatzen dira: alaba (*alab), saltsa (*salts), azoka (*azok), ... Azken letra horri "a" itsatsia deitzen zaio. Gizon, zuhaitz, ... bezalako hitzak ere -a letraz amai daitezke (gizona, zuhaitza), baina badakigu -a hori artikulua dela eta behar ez dutenean ez dutela hartzen (gizon bat, zuhaitz hori). "a" itsatsi dutenek, ordea, beti berekin dute eta oso-osorik idatzi behar da (alaba bat, saltsa hori).

Baina zeintzuk dira "a" itsatsia duten hitzak?

1. Banakako hitz batzuk. Hona hemen zerrenda.

abantaila	erregina	labana
agentzia	erromeria	leihatila
aisia	eskola	literatura
aitona	familia	lotsa
aitzakia	feria	lotura
akademia	festa	maila
alegia	gauza	makila
amona	gaztaina	makina
anaia	giltza	malezia
animalia	gonna	meza
antsia	grazia	natura
arbola	habia	neskatila
arnasa	harea	okela
arroa	heriotza	ola
arroza	hizkuntza	ordena
ausardia	hontza	ostia
axola	ideia	panpina
aza	ikastola	penitentzia
balea	imajina	pertsona
baratza	inbidia	pertsonaia
birjina	inportantzia	pezeta
botila	itxura	politika
burdina	izkina	polizia
dardara	justizia	premia
denbora	kaiola	probintzia
dotrina	kartzela	saltsa
egia	kontzientzia	teila
ekonomia	koroa	zalantza
eliza	kultura	zuhurtzia